

Protagonista

Nor bere bizitzaren protagonista izatea izan du hizpide Angel Errok *Berria* egunkariko bere iritzi-artikuluak.

Jarduera honetan, Erroren testua oinarri hartuta, bertan beltzez nabarmenduta dauden hitzen sinonimoen artean hautatzea proposatzen dizugu.

berria



Estilo
liburua



Maule
17°C

Izan BERRIlaguna



Hasi saloa



Gizartea Politika Ekonomia Mundua Iritzia Kultura Kirola Bizigiro Berria TB

Buletinak

Iritzia

JIRA

Protagonista



Angel Erro

Nor bere bizitzako protagonista izatea ongi dago, askotan ez dugu-eta beste **erremediorik (1)**, baina **zantzuak (2)** ikusten hasi naiz gu protagonista gaituen istorioan bigarren pertsonaiak **nekez (3)** onartzen ditugula. Joera bat da, gorantza doana. Autofikzioaren modak **areagotuta (4)**, beharbada. Adiskide batek ikusarazi dit orain jende gehienak lagunen edo ezagunen artean modu honetara **iragartzen (5)** duela, **esaterako (6)**, bere iloba jaio dela: «Zoriondu nazazue, jakin berri dut osaba (edo izeba) naizela (edo egin nautela)». «Nire arreba edo ahizpa, edo nire koinata, erditu da» edo, sinpleki, «nire iloba jaio da» esan **beharrean (7)**. «Ama bihurtu nintzenetik» diogu, «nire alaba jaio zenetik» esan beharrean. «Guraso garenok» diogu, «haurrak ditugunok» esan beharrean.

Gertaera historikoetan non geunden eta zer egiten ari ginen elkarri galdetzen hasi ginen halako batean, bitxikeria aipagarria edo **hitz-aspertua (8)** zelakoan, baina gero eta gehiagotan bilakatzen doa solasgai errepikakorra bezain alferrikakoa. Dorre bikiak erori izana edo Kataluniako independentzia, laburki bada ere, aldarrikatu izana **garrantzitsuak (9)** balira bezala, norberaren bizitzaren une eta toki zehatz bati lotuta, norberaren memoria autobiografikoan integratuta dauden **neurrian (10)**.

Jatorrizko testua, [helbide honetan](#) duzu irakurgai.

1.

- sendabiderik
- irtenbiderik
- laguntzarik
- akordurik

2.

- kutsuak
- tankerak
- osagaiak
- arrastoak

3.

- akiturik
- erraz
- gogotsu
- ozta-ozta

5.

- hedatzen
- adierazpen
- komentatzen
- iradokitzen

7.

- partez
- ordez
- lanean
- bitartean

9.

- alferrikakoak
- garrantzizkoak
- azalekoak
- muturrekoak

4.

- zapuztuta
- hauspotuta
- uxatuta
- oztopatuta

6.

- sarritan
- kasurako
- bide batez
- ordea

8.

- gogaikarria
- hitzaldia
- txutxu-mutxua
- berriketa

10.

- bezala
- heinean
- ezkerre
- modura

Zuzenketa-orria

1.

sendabiderik

irtenbiderik

laguntzarik

akordurik

2.

kutsuak

tankerak

osagaiak

arrastoak

3.

akiturik

erraz

gogotsu

ozta-ozta

4.

zapuztuta

hauspotuta

uxatuta

oztopatuta

5.

hedatzen

adierazpen

komentatzen

iradokitzen

6.

sarritan

kasurako

bide batez

ordea

7.

partez

ordez

lanean

bitartean

8.

gogaikarria

hitzaldia

txutxu-mutxua

berriketa

9.

alferrikakoak

garrantzizkoak

azalekoak

muturrekoak

10.

bezala

heinean

ezker

modura